

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

96/2019 Foru Agindua, otsailaren 18koa, onesten duena deialdia eta oinarri espezifikokoak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio bereziko eskalako, zerbitzu berezien azpieskala, egiteko berezien klasea, Zergak Ikuskatzea (Zerga Ikuskatzailea) sartzeko hautaketa prozesua arautu behar dutenak.

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 12ko 750/2017 Erabakiaren bidez, onespena eman zitzaien Arabako Foru Aldundiaren 2017rako Administrazio Orokorraren enplegu publikoaren eskaintzei, zeinetan jasota baitaude dagozkien hautaprobaren bidez hornitu beharko diren plazak.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuaren otsailaren 15eko 82/2019 Foru Aginduaren bidez, oinarri orokorrak onartu ziren, aipatu diren enplegu publikoaren eskaintza horien ondorioz Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren zerbitzura karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuak arautuko dituztenak.

Hautaketa prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa da eskala, azpieskala eta klase bakoitzeko plazen deialdia arautu behar duten oinarri espezifikokoak argitaratzea, eta horietan plaza bakoitzaren ezaugarri bereziak zehaztu beharko dira.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengo artikulua.- Oinarri hauen gai diren hautaprobetarako deia egitea.

Bigarren artikulua.- I. eranskin moduan jasotzen diren oinarri espezifikokoak onartzea, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio bereziko eskalako, zerbitzu berezien azpieskala, egiteko berezien klasea, Zergak Ikuskatzea (Zerga Ikuskatzailea) sartzeko hautaketa prozesua arautu behar dutenak.

Hirugarren artikulua.- II. eranskin moduan jasotzen den gai zerrenda onartzea.

Laugarren artikulua.- Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik –azaroaren 26ko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta–.

Gasteiz, 2019ko otsailaren 18a

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR



I. ERANSKINA

OINARRI ESPEZIFIKOAK

ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA, ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALA, EGITEKO BEREZIEN KLASEA, ZERGAK IKUSKATZEA (ZERGA IKUSKATZAILEA) (kodea: 13218)

1. DEIALDIKO PLAZAK

Dei egiten da administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalako egiteko berezien klaseko 2 plaza zergak ikuskatzea (zerga ikuskatzailea), A taldea, A1 (A) azpitaldea– oposizio-lehiaketa bidez hornitzeko, ondoren azaltzen den bezala banaturik:

- 2 plaza sistema irekiko txanda orokorrean, derrigortasun datarik gabeko 3. hizkuntza eskakizunarekin.

2. BETEKIZUNAK

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, doktore, lizentziadun, gradu, ingeniari edo arkitekto titulua edo baliokidea eduki beharko da, edo horiek jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki. Atzerrian lortutako tituluak izatekotan, horien homologazioa frogatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.

Halaber, beharrezkoa izango da B motako gidabaimena edukitzea.

3. HAUTAKETA PROZESUA

3.1. Oposizio aldia

Aldi honetan, hiru ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta baztertzailak.

3.1.1. Lehenengo ariketa

Ariketa honetan, gehienez ere, hamar (10) puntu eskuratu ahal izango dira. Nahitaezko proba bat izango da, zeinean erantzun beharko baitzaio, idatziz, oinarri hauetako gai zerrendaren zati komuneko eta zati espezifikoko edukien inguruko galdetegi bati. Ariketa epaimahaiak ezarritako gehienezko tartean egin beharko da eta galdera bakoitzean aukeratzeko launa erantzun izango dira.

Zuzeneko puntuazioa formula honen emaitza izango da: erantzun zuzenen kopurua ken erantzun okerren herena ($P = Z - O/3$). Kontu horretarako, erantzun gabeko galderei ez zaie oker iritziko.

Epaimahaiak erabakiko du, izangaiak nortzuk diren jakin baino lehenago, proba gainditzeko gutxieneko puntuazioa zein izango den; edonola ere, gutxieneko puntuazioa ezingo da 4 puntu baino gutxiago izan.

3.1.2. Bigarren ariketa

Epaimahaiak ezarritako gehienezko tartean, ariketa praktiko bat edo gehiago egin beharko dira kontabilitatearekin eta finantza matematikekin lotuak, erantsitako gai zerrendaren gai espezifikoen arabera, eta baliteke hautagaiek ariketaren zati bat edo batzuk irakurri behar izatea.



Ariketa honetan zero (0) eta zortzi (8) puntu artean eskuratu ahal izango dira.

Epaimahaiak erabakiko du, izangaiak nortzuk diren jakin baino lehenago, proba gainditzeko gutxieneko puntuazioa zein izango den; edonola ere, gutxieneko puntuazioa ezingo da hiru koma bost (3,5) puntu baino gutxiago izan.

Ariketa hau kalifikatzeko, kontuan hartuko dira erantzunen zehaztasuna, sintesirako eta analisirako gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna eta horien azalpenaren argitasuna eta zuzentasuna.

3.1.3 Hirugarren ariketa

Epaimahaiak ezarritako gehieneko tartean, ariketa praktiko edo teoriko-praktiko bat edo gehiago egin beharko dira erantsitako gai zerrendako gai espezifikoarekin lotuta, eta baliteke hautagaiek ariketaren zati bat edo batzuk irakurri behar izatea.

Ariketa honetan zero (0) eta zortzi (8) puntu artean eskuratu ahal izango dira.

Epaimahaiak erabakiko du, izangaiak nortzuk diren jakin baino lehenago, proba gainditzeko gutxieneko puntuazioa zein izango den; edonola ere, gutxieneko puntuazioa ezingo da hiru koma bost (3,5) puntu baino gutxiago izan.

Ariketa hau kalifikatzeko, kontuan hartuko dira erantzunen zehaztasuna, sintesirako eta analisirako gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna eta horien azalpenaren argitasuna eta zuzentasuna.

3.2. Euskara

Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeaz azken eguna hautaketa prozesu honetarako aurreikusitako euskara deialdi bateratuko lehenengo proba egiten den eguna izango da.

Arabako Foru Aldundiak ofizioski eskatuko dio Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuari izangaiek lortu duten egiaztageria.

Aipatutako erregistroan jasotzen ez den hizkuntza eskakizun bat edo baliokideren bat daukatenez hala egiaztatu beharko dute epaimahai kalifikatzaileak ezartzen duen epean eta lehenengo paragrafoan ezarritako azken eguna baino lehenago.

Hizkuntza eskakizunen bat egiaztatzea honela baloratuko da:

- 1. HE: 1,73 puntu.
- 2. HE: 2,16 puntu.
- 3. HE: 3,80 puntu.
- 4. HE: 4,23 puntu.

3.3. Lehiaketa aldia

Lehiaketa aldian, izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak balioetsiko dira. Merezimenduen baremo honen arabera dagozkien puntuak esleituz egingo da:



3.3.1. Esperientzia

Administrazio publikotzat hartzen diren erakunde eta organismoetako lan esperientzia honela balioetsiko da: 0,05 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez ere zazpi (7) puntu, zerga ikuskaritza, zerga kudeaketa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboen ebazpen eginkizunetan aritzeagatik A taldeko A1 (A) azpitaldeko eskaletan edo azpieskaletan, Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 30eko 208/1999 Dekretuan xedatutakoaren arabera, edozein lotura juridikoren pean, salbu eta zerbitzu zibilak edo merkataritzako zerbitzuak errentatzeko kontratuen bidez egindako zerbitzuak eta beken eta prestakuntza praktiken bitartez egindakoak.

Horren ondorioetarako, administrazio publikotzat hartuko dira abenduaren 26ko 70/1978 Legean agertzen direnak; beraz, administrazio horietan egindako aurreko zerbitzuak balioetsiko dira, baina ez merkataritzako sozietate publikoetan eta fundazioetan egindakoak.

3.3.2. Hizkuntzak

Jarraian ageri den taularen arabera balioetsiko da Europar Batasuneko hizkuntza ofizialen ezagutza (EAEn ofizialak direnak izan ezik), eta atal honetan gehienez ere 1 puntu lortu ahalko da:

- B-2: 0,50 puntu
- C-1: 0,75 puntu
- C-2: 1 puntu

Europar Batasuneko hizkuntza ofizialen ezagutza egiaztatzeko azken eguna hautaketa prozesu honetako lehenengo proba egiten den eguna izango da.

Nolanahi ere, ziurtagiriak meritua aurkezteko fasean alegatu beharko dira.

3.3.3. Informatika ezagutza

Informatika ezagutzaren maila egiaztatzea merezimendu bezala balioetsiko da, Euskadi Informazio Gizartean Planak KZGune zentro publikoetan eskura jartzen dituen moduluen bitartez, IT Txartela ziurtatze sistemaren bitartez edo beste organismo publiko batzuek emandako ziurtagiri baliokide baten bitartez.

Informatika ezagutzak egiaztatzeko azken eguna hautaketa prozesu honetako lehenengo proba egiten den eguna izango da.

Arabako Foru Aldundiak erakunde jaulkitzaileari (IT Txartela) ofizioz eskatuko dio izangaiek lortu dituzten egiaztapenak ziurtatzeko.

Beste organismo publiko batzuek emandako ziurtagiri baliokideren bat daukatenez hala egiaztatu beharko dute epaimahai kalifikatzaileak ezartzen duen epean.

Nolanahi ere, IT Txartelak edo ziurtagiri baliokideak meritua aurkezteko fasean alegatu beharko dira.

Merezimendu horri gehienez ere 0,50 puntu emango zaizkio, honako baremo honen arabera:



PROGRAMA	PUNTUAK
Windows 7	0,10
Microsoft Word 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Word 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Word XP aurreratua	0,10
Microsoft Word 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Word 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Power Point XP	0,10
Microsoft Power Point 2003	0,10
Microsoft Power Point 2007	0,10
Microsoft Power Point 2010	0,10
Microsoft Excel XP aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Access XP aurreratua	0,10
Microsoft Access 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Access 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Access 2010	0,10
Microsoft Outlook 2003	0,10
Microsoft Outlook XP	0,10
Microsoft Outlook 2010	0,10
Office XP	0,10

Aplikazio baten bertsio jakin baten ziurtapenak baliogabetu egingo ditu bertsio zaharragoenak.

3.4. Praktika eta prestakuntza aldia

Gehienez ere 6 hilabete iraungo duen praktika eta prestakuntza aldi bat egingo da, oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat etorritik.



II. ERANSKINA

GAI ZERRENDAA

1.- GAI KOMUNAK

1. gaia.- Espainiako Konstituzioa (I). Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak (10. – 55. artikulua).
2. gaia.- Espainiako Konstituzioa (II). Estatuaren lurralde antolamendua (137. – 158. artikulua).
3. gaia.- Europar Batasuna. Erakunde eta organismo nagusiak, haien osaera eta eskumenak: Europar Kontseilua, Europar Batasunaren Kontseilua, Batzordea, Parlamentua, Justizia Auzitegia, Europako Kontu Auzitegia, Eskualdeen Batzordea, Europako Inbertsio Bankua.
4. gaia.- Euskal Herriko Autonomia Estatutua (I). Atariko titulua (1. – 9. artikulua). I. titulua: Euskal Herriaren eskumenak (10. – 12. artikulua). II. titulua: Euskal Autonomia Erkidegoko aginteak (24. – 39. artikulua).
5. gaia.- Euskal Herriko Autonomia Estatutua (II). III. titulua: Ogasuna eta ondarea (40. – 45. artikulua).
6. gaia.- Arabako Batzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (I). 1983ko martxoaren 7ko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko erakunde antolamendua (1. – 14. artikulua).
7. gaia.- Arabako Batzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (II). 1983ko martxoaren 7ko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko erakunde antolamendua (15. – 33. artikulua).
8. gaia.- Arabako Batzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (III). 52/1992 Foru Agindua, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoari buruzkoa (3., 4., 17., 18., 38. eta 39. artikulua). 10/2018 Foru Araua, uztailaren 11koa, foru kargu publikoen jarduna arautzen duena (2. – 19. eta 33. – 36. artikulua).
9. gaia.- Enplegu publikoa (I). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua. Langile motak (8. – 13. artikulua). Enplegu publikoaren eskubideak (14. – 20. artikulua). Enplegu publikoaren eginbeharrak. Jokabide kodea (52. – 54. artikulua).
10. gaia.- Enplegu publikoa (II). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua. Zerbitzu harremana eskuratzea eta galtzea (55. – 68. artikulua).
11. gaia.- Enplegu publikoa (III). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua. Administrazio egoerak (85. – 92. artikulua). 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. Hizkuntza normalkuntza (97. – 99. artikulua).



12. gaia.- Administrazio prozedura (I). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena. Jarduera arau orokorrak (13. – 28. artikulua). Epe mugak eta epeak (29. – 33. artikulua). Egintzen eraginkortasuna (37. – 42. artikulua).

13. gaia.- Administrazio prozedura (II). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena. Administrazio prozeduran interesdun denaren eskubideak (53. artikulua). Prozeduraren antolamendua (70. – 74. artikulua). Ebazpena (87. – 92. artikulua).

14. gaia.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Legearen xedea eta aplikazio eremua (1. – 3. artikulua). Kontratu motak (12. – 18. artikulua). Administrazio kontratuak eta kontratu pribatuak (24. – 27. artikulua).

15. gaia.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora Sektore publikoko kontratazioari buruzko xedapen orokorrak. (28. – 43. artikulua)

16. gaia.- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 15ekoa, datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko. Datuak babestean printzipioak (4. – 10. artikulua). Pertsonen eskubideak (11. – 18. artikulua). Eskubide digitalak bermatzea (79. – 97. artikulua).

17. gaia.- 1/2017 Foru Araua, otsailaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunarena, herritarren parte-hartzearena eta gobernu onarena. Xedapen orokorrak (1. – 4. artikulua). Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasuna (17. – 36. artikulua).

18. gaia.- Berdintasun politikak. Printzipio orokorrak eta babesa. Politika publikoak: printzipio orokorrak (3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako: 3. – 22. artikulua). EAEko herri administrazioen esparruko neurriak (Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako, 3. artikulua eta 18. – 22. artikulua).

2.- GAI ESPEZIFIKOAK

FINANTZA ETA ZERGA ZUZENBIDEA

19. gaia.- Estatuaren eta EAEn arteko ekonomia ituna (I). aurrekariak eta bilakaera historikoa. Izaera juridikoa eta oinarri legala 1978ko Konstituzioan. Lurralde historikoetako eskumenak eta estatuaren eskumenak. printzipio orokorrak. Harmonizazio arauak eta lankidetzaren printzipioak. Kudeaketa arauak eta prozedura. Finantza harremanetako arau orokorrak. Kupoaren zenbatekoa zehazteko metodoa. Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa. Arauak Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordea. Arbitraje Batzordearen Arautegia. 3/1989 Legea, maiatzaren 30ekoa, zerga harmonizazio, koordinazio eta lankidetzarena. Aplikazio eremua. Harmonizazioa eta zerga bakoitzaren alderdi harmonizatzaileak. Zentralizazioa zerga betebeharrak betetzean. Euskadiko Zergak Koordinatzeko Organoa. Iruzuraren Aurkako Euskadiko Batzordea.

20. gaia.- Estatuaren eta EAEn arteko ekonomia ituna (II). Araudi aplikagarria, ordainarazteko eskumena, ikuskatzeko eskumena eta lotura puntuak ondoko zerga-figura hauetan: pertsona fisikoaren



errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga, energia elektrikoaren ekoizpen balioaren gaineko zerga, energia nuklearra sortzearen ondorioz erregai nuklear gastatua eta hondakin erradioaktiboak ekoiztearen gaineko zerga, erregai nuklear gastatua eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatuetan gordetzearen gaineko zerga, gas, petrolio eta kondentsatuen erauzte balioaren gaineko zerga, kreditu entitateetako gordailuen gaineko zerga, ondarearen gaineko zerga, oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga, balio erantsiaren gaineko zerga, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, zerga bereziak, aseguru primen gaineko zerga, berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga, zeharkako beste zergak, jokoaren gaineko zergak, tasa eta ordainarazpen parafiskalak eta toki zergak.

21. gaia.- Zerga zuzenbidea: kontzeptua eta edukia. Zerga antolamenduaren xedapen orokorrak: printzipio orokorrak. Araudiaren iturriak: zergei buruzko foru arauaren erreserba, zerga premiazko araugintzako dekretua. Zerga arauen aplikazioa. Interpretazioa, kalifikazioa eta integrazioa: zerga arauen interpretazioa, kalifikazioa, analogiaren debekua, elusioaren aurkako klausula, simulazioa. Tributua. Tributuen kontzeptua, motak eta helburuak. Eremu juridikoaren eta tributuen arteko harremana. Zerga betebeharrak. Zerga administrazioaren betebeharrak eta eginbeharrak.

22. gaia.- Zergapekoen eskubideak. Elkarren laguntza. Zergapekoak. Zergapeko motak. Oinordekoak. Zerga erantzuleak. Jarduteko gaitasuna zerga ordenan. Zerga egoitza. Zerga betebeharrak nagusia eta konturako ordainketak egiteko betebeharrak kuantifikatzeko elementuak. Zerga oinarria zehazteko metodoak: zuzeneko zenbatespena, zenbatespen objektiboa eta zeharkako zenbatespena. Likidazio oinarria. Karga tasa. Zerga kuota. Balioak egiaztatzea. Zerga zorra: xedapen orokorrak, zerga zorra azkentzea. Ordainketa. Preskripzioa. Zerga zorra azkentzeko beste modu batzuk. Zerga kredituaren bermeak.

23. gaia.- Zergen aplikazioa. Zerga prozedurak. Informazioa eta laguntza zergapekoei. Gizartearen laguntza zergen aplikazioan. Zergen arloan garrantzia duten datuak isilpean eduki beharra. Zerga betebeharrak ez-betetzeko nabarmena den egoeren publikizitatea. Zerga jardunei eta prozedurei buruzko arau komunak. Zerga prozeduren faseak. Zerga likidazioak. Ebazteko betebeharrak eta ebazteko epeak. Proba. Jakinarazpenak. Zergapekoen etxean sartzeko. Salaketa publikoa. Egiaztatze eta ikertze ahala eta eginkizunak.

24. gaia.- Zerga kudeaketako jardunak eta prozedurak: xedapen orokorrak. Zerga kudeaketaren prozedurak: autolikidazio bidez hasitako prozedura eta aitortze bidez hasitako prozedura. Autolikidazio edo aitortze bidez hasitako prozeduren xedapen komunak. Ofizios hasitako prozedura zerga zorra likidatzeko. Balioak egiaztatze prozedura. Egiaztatze mugatuko prozedura.

25. gaia.- Zerga ikuskatzailtza (I). Funtzioak eta ahalmenak. Ikuskatze jardunak eta prozedurak. Ikuskatze funtzioak eta ahalmenak. Interesdunaren agiriak aztertzea. Finketara sartzeko eta ikuskatzea. Beste ikuskatze funtzio batzuk. Zerga ikuskatzeari kasu egiteko betebeharrak. Zergapekoen esku hartzea eta ordezkartzea. Ikuskatze jardunen agiriak: jakinarazpenak, eginbideak, txostenak eta aktak. Akta motak eta haiek izapidetzea. Ikuskatzailtza jardunen lekua eta denbora.

26. gaia.- Zerga ikuskatzailtza (II). Ikuskatze prozedurak. Egiaztatze eta ikertze prozedura: arau orokorrak. Ikuskatze jardunen hasiera, garapena eta amaiera. Egiaztatze eta ikertze prozeduraren iraupen epeen inguruko arauak. Kautelazko neurriak. Arau bereziak: zeharkako zenbatespena, erantzukizun solidarioaren adierazpena, zerga baterakuntzako araubidean edo entitate taldeen araubidean tributatuaren duten entitateekiko jardunak. Egiaztatze mugatuko prozedura. Zergapekoa bertaratu gabeko erregularizazio prozedura. Informazioa eskuratzeko jardunak. Elusioaren aurkako klausula aplikatzeko prozedura. Balioespen jardunak. Betebeharrak formalak egiaztatze jardunak. Egiaztatze mugatuko prozedura.



27. gaia.- Zerga bilketako jardunak eta prozedura: xedapen orokorrak. Ordainketa geroratzea eta zatikatzea. Zerga zorrak geroratzeko kontua. Premiamendu prozedura. Prozeduraren arau orokorrak. Premiamendu prozedura hastea eta garatzea. Premiamendu prozedura amaitzea. Ondasunen bahitura eta bahitutako ondasunen besterentzea. Erantzule solidarioen, subsidiarioen eta oinordekoen aurreko prozedura.

28. gaia.- Zerga arloan zehatzeko ahalaren printzipioak. Zerga arloko arau hauste eta zehapenen gaineko xedapen orokorrak. Zerga arloko arau hauste eta zehapenen subjektu erantzuleak. Zerga arloko arau hauste eta zehapenen kontzeptua eta motak. Zehapenak mailakatzeko irizpideak eta zehapenen murrizketa. Diruzko zerga zehapenak kuantifikatzea. Zerga arloko arau hauste eta zehapenen erantzukizuna azkentzea. Diruz bestelako zehapenak ezartzea. Zerga arloko arau hauste eta zehapenen tipologia. Zerga gaietako zehapen prozedura: Prozeduraren hasiera, instrukzioa eta amaiera. Prozedura laburtua. Ikuskatze prozeduretako baten ondorioz hasitako zehapen prozedurak bereiz izapidetzean aplikatzekoak diren arau bereziak. Zehapenen kontrako errekurtsoak.

29. gaia.- Delitu fiskala. Babestutako ondasun juridikoa. Tipoaren osagai objektibo eta subjektiboak: doloa. Herri Ogasunaren kontrako delituen tipo penalen deskribapena. Egiletza eta partaidetza; pertsona juridiko baten bitartez egindako delitua. Justifikazio arrazoiak; zerga erregularizazioa (gerora sortutako atipikotasuna) eta zigorraren arintzea. Penaltatea eta azpitipo astunduak. Frogaren balioespena delitu fiskalean. Delituaren preskripzioa. Erantzukizun zibilaren ordainarazpena Ogasun Publikoaren aurkako delituagatik, eta kautelazko neurriak. Berezitasunak kondena-epaiak exekutatzean. Prejudizialitatearekiko erreferentzia. Tributuak aplikatzeko jarduketak eta prozedurak Herri Ogasunaren aurkako delitu kasuetan. Ondarea ikertzeko eskumenak Herri Ogasunaren kontrako delituen prozesuetan. Herri Ogasunaren kontrako beste delituak: dirulaguntzetako iruzurra, kontabilitate iruzurra, exekuzioa zapuzteko delituen berezitasunak eta kaudimengabezia zigorgarriak, Herri Ogasunari dagokionez. Zerga eremua ukitzen duten Estatuaren laguntzak berreskuratzea.

30. gaia.- Administrazio bidean berrikustea: arau komunak. Berrikuspen prozedura bereziak. Zuzenbide osoz deusezak diren egintzak berrikusteko prozedura. Egintza deuseztagarrien kaltegarritasun deklarazioa. Baliogabetzea. Akatsak zuzentzea. Bidegabeko sarrerak itzultzea. Berraztertze errekurtsoa: xedea eta izaera. Berraztertze errekurtsoa hasi, izapidetu eta ebatzea. Erreklamazio ekonomiko-administratiboak. Erreklamazio ekonomiko-administratiboaren eremua. Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen antolaketa eta eskumenak. Erreklamazio ekonomiko-administratiboetan eskubidea eta interesa dutenak. Prozedura ekonomiko-administratiboa: arau orokorrak, hasiera, izapidetzea, berrikuspenaren hedapena, amaiera eta ebatzea. Deuseztatze errekurtsoa. Exekuzioaren kontrako errekurtsoa. Berrikusteko aparteko errekurtsoa.

31. gaia.- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (I). Zergaren izaera eta aplikazio eremua. Zerga gaia. Zergadunak. Zerga oinarria: kontzeptua eta zehaztea. Lan etekinak. Jarduera ekonomikoen etekinak, kapitalaren etekinak: higiezinena eta higikorrena. Ondare irabaziak eta galerak. Errenten egozpena eta eratxikitzea. Lekualdatutako langileen araubide berezia. Sozietateen gaineko zergaren pean dauden sozietate zibiletako bazkideen araubidea. Lurralde komuneko araudian xedatutakoaren babesean desegin eta likidatutako sozietate zibiletako bazkideen araubidea. Lehentasuneko partaidetzen zerga araubidea. Aldi egozpena. Balioespen arau bereziak: errenta zenbatetsien balioespena, lotutako eragiketak eta gauzako errentak.

32. gaia.- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (II). Errenta motak. Errenten integrazioa eta konpentsazioa. Likidazio oinarri orokorra eta aurrezkiarena. Kuota osoa. Kenkari orokorra. Familia kenkariak eta kenkari pertsonalak. Pertsona ezinduaren ondare babestura egindako ekarpenen kenkariak. Ohiko etxebizitzaren kenkariak. Jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak. Dohaintzen



kenkariak. Nazioarteko zergapetze bikoitzaren kenkaria. Langile sindikatuei ordaindutako kuoten kenkaria. Sustapena langileek enpresan partaidetza edukitzeagatik. Kuota diferentziala. Zerga zorra. Baterako tributazioa. Zergaldia eta sortzapena. Autolikidazioak. Konturako ordainketak. Behin-behineko likidazioak. Betebehar formalak. Ondare erantzukizuna eta zehapen araubidea. Jurisdikzio ordena.

33. gaia.- Pertsona fisikoaren ondarearen gaineko zerga. Izaera, xedea eta aplikazio eremua. Zerga gaia eta salbuetsitako ondasun eta eskubideak: jarduera ekonomikoei lotutako ondasunak eta zenbait partaidetza salbuesteko betekizunak. Subjektu pasiboa. Ondare esleipena eta egozpena. Zerga oinarria eta likidazio oinarria. Sortzapena. Zerga zorra zehaztea. Zergaren kudeaketa. Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten jaraunspenen zerga araubidea. Arau haustek eta zehapenak. Jurisdikzio ordena.

34. gaia.- Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Izaera, xedea eta aplikazio eremua. Elementu pertsonalak: zergadunak, Espainiako lurraldeko egoiliarra ez izatea, errentak banakatzea, erantzuleak, ordezkariak, zerga egoitza. Zergapean egotea: zerga gaia, Arabako lurraldean lortutako errentak, salbuetsitako errentak, zergapean egoteko erak eta lotutako eragiketak. Establezimendu iraunkorren bidez lortutako errentak. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak. Egoiliarrek ez diren entitateen higiezinaren gaineko karga berezia. Errenta eratzikipenaren araubidean dauden erakundeak. Kreditu entitateetako gordailuen gaineko zerga. Zergaren izaera eta xedea. Zergaren araudia eta ordainarazpena. Zerga gaia, salbuespenak, zergaldia eta sortzapena. Zergadunak. Zerga oinarria, zerga kuota eta konturako ordainketak. Zehapen araubidea.

35. gaia.- Sozietateen gaineko zerga (I). Izaera eta aplikazio eremua. Zerga gaia. Zergadunak. Salbuespenak. Mikroenpresa, enpresa txikia eta enpresa ertaina: zer diren. Ondare sozietateak: zer diren. Zerga oinarria: zuzenketak gastuetan. Amortizazioak. Ondare elementuen balio narriaturaren ondoriozko galera: kaudimengabezia eta balio galerak. Finantza merkataritzako funtsaren zerga tratamendua, eta bizitza baliagarri mugagabea duten zenbait ukiezinena. Hornidurak. Gizarte aurreikuspeneko sistematarako ekarpenak. Agortze faktorea. Aurrezki kutxen hornitza eta gizarte ekintza. Gastu ez kengarriak. Gastuei buruzko arau bereziak.

36. gaia.- Sozietateen gaineko zerga (II). Zerga oinarria: zuzenketak diru sarreretan; zuzenketak balioespen arauetan eta abusuaren aurkako neurriak; zuzenketak emaitzaren aplikazioan; aldi egozpenari eta kontabilitateko inskripzioari buruzko arau komunak; zerga oinarri negatiboaren konpentsazioa. Sozietateen gaineko zergaren pean dauden sozietate zibiletako bazkideen araubidea.

37. gaia.- Sozietateen gaineko zerga (III). Zerga zorra: karga tasa; kuota osoa; kuota likidoa; kuota efektiboa eta gutxieneko tributazioa. Zergapetze bikoitza ekiditeko kenkaria. Beste kenkariak: kenkaria aktibo finko berrietan egindako inbertsioengatik; kenkaria ikerketa eta garapen jarduerengatik; kenkaria teknologia berrikuntzako jarduerengatik; garapen iraunkorra, ingurumenaren zaintza eta hobekuntza eta energia iturrien aprobetxamendu eraginkorra lortzeko proiektuekin lotutako inbertsioengatik eta gastuengatik egin daitekeen kenkaria; kenkaria enplegua sortzeagatik; kenkari horien arau komunak. Kultura sustatzeko pizgarriak. Konturako ordainketen kenkaria.

38. gaia.- Sozietateen gaineko zerga (IV). Zerga araubide bereziak: definizioa. Interes ekonomikoko taldeak, Espainiakoak eta Europakoak. Aldi baterako enpresa elkarteak. Arrisku-kapitaleko sozietate eta funtsak. Inbertsio kolektiboko erakundeak. Balore jakin batzuk edukitzeko entitateak. Ondoko hauen araubide berezia: bat-egiteak, zatiketak, aktibo ekarpenak, balore trukeak, aktibo eta pasibo osoaren lagapenak, eta Europako sozietate baten edo Europako sozietate kooperatibo baten egoitza Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera aldatzea. Zerga baterakuntzako araubidea: talde fiskalaren, entitate nagusiaren eta menpeko sozietateen definizioa; sozietateak talde fiskalean sartzea



edo irtetea; zeharkako nagusitasunaren zehaztapena; zerga baterakuntzako araubidearen aplikazioa; zerga baterakuntzako araubidea galtzea berekin dakarten arrazoiak; zerga baterakuntzako araubidea galtzearen eta talde fiskala desagertzearen ondorioak.

39. gaia.- Sozietateen gaineko zerga (V). Higiezinaren errentamenduaren jarduera kualifikatua egiten duten entitateen araubidea. Zergaldia eta zergaren sortzapena. Zergaren kudeaketa. Entitateen indizea. Kontabilitate betebeharrak. Kontabilizatu gabeko ondasunak eta eskubideak. Borondatezko errebalorizazioak. Aitorpena, autolikidazioa eta behin-behineko likidazioa. Autolikidazioa aurkeztean egin behar diren aukerak. Ofiziozko itzulketa. Konturako ordainketak. Egiaztatze ahalmenak: Administrazioaren ahalmenak zerga oinarria zehazteko, ikuskatzaitzaren eskumena. Jurisdikzio ordena.

40. gaia.- Kooperatiben zerga araubidea. Kooperatiba babestuak, kooperatiba bereziki babestuak eta babestu gabeko kooperatibak. Kooperatiba bereziki babestuen izaera galtzea. Zerga oinarria zehaztea. Zerga zorra. Bazkideen ekarpenen eguneratzea. Atxikipenak eta konturako beste ordainketak. Kooperatibetako bazkideen araubidea. Kooperatibei aitortutako zerga onurak. Kreditu kooperatibak. Kooperatiba elkarten araubidea. Onura publikoko eta gizarte ekimeneko kooperatibak.

41. gaia.- Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubidea eta mezenasgorako zerga pizgarriak. Objektua, aplikazio eremua eta ordezkotza araudia. Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubide berezia. Araubide berezia sozietateen gaineko zergan. Araudi aplikagarria Salbuetsitako errentak. Salbuetsitako ustiapen ekonomikoak. Zerga oinarria zehaztea. Balioespen arauak. Karga tasa. Kontabilitate betebeharrak. Atxikipena egin behar ez zaizen errentak. Aitortzeko betebeharrak. Zerga araubide bereziaren aplikazioa. Toki zergak. Mezenasgoaren onuradun diren erakundeak. Emari, dohaintza, ekarpen eta prestazioen zerga araubidea. Kenkariak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, sozietateen gaineko zergan eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan. Bestelako mezenasgo moduen zerga araubidea. Lehenasuneko mezenasgo jardueri eta interes publiko bereziko gertakariak babesteko programei aplikatu ahal zaizkien zerga onurak.

42. gaia.- Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga (I). Izaera, objektua, aplikazio eremua eta ordainarazpena. Ohiko bizilekua. Kalifikazioaren printzipioa eta zergaren lotura. Zerga gaia. Zergadunak eta erantzuleak. Zerga oinarria: arau orokorrak, "mortis causa" eskuratzearako arau bereziak, bizi arteko kostu gabeko eskualdaketarako arau bereziak, bizi asegurueterako arau bereziak.

43. gaia.- Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga (II). Balioak egiaztatzea. Likidazio oinarria. Zerga zorra. Sortzapena eta preskripzioa. Betebehar formalak: komisarioaren betebeharrak testamentu ahalordearen edo gozamen ahalduaren pean dauden jaraunspenak; agintarien, funtzionarioen eta partikularren eginbeharrak; aurkeztu ezaren ondorioak. Zergaren kudeaketa: arau orokorrak; aurkezteko epeak, luzapena eta etetea; dokumentuak aurkezteko tokia; eskumen kontuak; izapidetzea eta likidazioa; zergaren ordainketa. Ordainketa geroratzea eta zatikatzea. Arau hausteak eta zehapenak.

44. gaia.- Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga (III). Arau bereziak. Ordezpena. Fideikomisoak. Ondasun erreserba. Beste instituzio batzuk. Banaketa eta esleipen soberakinak. Gozamen ahaldu edo testamentu ahalorde bidez deferitzen diren jaraunspenak. Testamentu ahalordea eta gozamen ahalduaren ahalmenak erabiltzea. Jaraunspen bidezko eskuratzeezko metaketa. Likidazio arauak itzulketetan. Alargunaren senipartea ordaintzea eta ondasunak jabari osoarekin ematea. Jaraunspena edo legatua arbuiazea eta uko egitea. Dohaintza bereziak. Dohaintzen eta kostu gabeko beste eskualdaketan metaketa. Bizi aseguruengatik jasotako diru kopuruen metaketa.



45. gaia.- Balio erantsiaren gaineko zerga (I). Izaera eta aplikazio eremua. BEZaren eta ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren arteko muga. Ondasunak ematea eta zerbitzuak ematea: zerga gaia, zergapean ez dauden eragiketak, salbuespenak, gauzatze lekua, sortzapena, zerga oinarria –arau orokorra eta arau bereziak– eta subjektu pasiboa. Europar Batasunaren barruko ondasun eskuratzekoak: zerga gaia, zergapean ez egotea, salbuespenak, gauzatze tokia, sortzapena, zerga oinarria eta subjektu pasiboa. Ondasunen inportazioa: zerga gaia, salbuespenak, sortzapena, zerga oinarria eta subjektu pasiboa. Barne salbuespenak. Esportazioei, esportazioekin parekatzen diren eragiketei, salbuetsitako eremuei eta etadura araubideei buruzko salbuespenak. Zerga gaiaren gauzatze lekua.

46. gaia.- Balio erantsiaren gaineko zerga (II). Zerga jasanaraztea eta zerga tasak. Kenkariak: kenkari eskubiderako betekizunak eta haren mugak. Kenkari araubidea jarduera desberdinduko sektoreetan. Hainbanaketa erregela. Kenkarien erregularizazioa. Itzulketak; zerga aplikatzen den lurraldean egoitzarik ez duten zenbait enpresaburu edo profesionalentzako itzulketak. Subjektu pasiboen betebeharrak. Zergaren kudeaketa. Sarrera etetea. Arau hausteak eta zehapenak.

47. gaia.- Balio erantsiaren gaineko zerga (III). Araubide bereziak: arau orokorrak; araubide erraztua; nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide berezia; telekomunikazio, irrati edo telebista zerbitzuei eta bide elektronikoz ematen direnei aplikatzeak zaizkien araubide bereziak; entitate taldeen araubide berezia; erabilitako ondasunen, arte objektuen, antzinako gauzen eta bilduma gaien araubide berezia; inbertsioko urrearen araubide berezia; bidaia agentzien araubide berezia; baliokidetasun errekaruaren araubide berezia; kutxa irizpidearen araubide berezia.

48. gaia.- Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga (I). Izaera, edukia eta aplikazio eremua. Ondare eskualdaketak. arau orokorrak eta bereziak eta zergapetu gabeko kasuak. Subjektu pasiboa, zerga oinarria, likidazio oinarria eta zerga kuota. Sozietate eragiketak: zerga gaia, subjektu pasiboa, zerga oinarria eta zerga kuota. Egintza juridiko dokumentatuak: Notario dokumentuak, merkataritzako dokumentuak eta administrazio dokumentuak.

49. gaia.- Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga (II). Hiru kargetarako xedapen komunak. Zerga onurak eta kuota hobariak. Balioak egiaztatzea. Sortzapena eta preskripzioa. Betebehar formalak. Zergaren kudeaketa eta likidazioa. Itzulketak. Zehapen araubidea. Arabako Lurralde Historikoan dauden landa eta hiri ondasun higiezinak balioesteko arau zehatzak. Hiri eta landa ondasun higiezinaren kontzeptua. Eraikitako azalera eta azalera erabilgarria. Balioespen lokabea. Honako hauen balioespena: Gasteizko udal mugartean dauden landa ondasun higiezinak, hiri ondasun higiezinak, babes ofizialeko etxebizitzak, lonjak, merkataritza lokalak, sotoak eta solairuarteak, bertako toki entitate txikietan edo barreiaturikoetan ez badaude. Ondasun higiezinaren identifikazioa.

50. gaia.- Zerga bereziak (I). Izaera. Fabrikazioaren gaineko zerga bereziak: sailkapena. Aplikatzeko lurralde eremua. Kontzeptuak. Zerga gaia. Ez-zergapetze kasuak. Sortzapena. Subjektu pasiboak eta erantzuleak. Salbuespenak. Itzulketak. Etadura araubidearen amaiera. Zerga oinarriak eta tasak. Jasanarazpena. Fabrikazioa, transformazioa eta edukitzea. EBren barruko zirkulazioa. Irregularitasunak EBren barruko zirkulazioan. Kudeaketa arau orokorrak. Arau hausteak eta zehapenak. Alkoholen eta edari alkoholduen gaineko zerga berezien xedapen komunak: definizioak. Salbuespenak. Itzulketak. Kanaria uharteei buruzko xedapen bereziak. Garagardoaren gaineko zerga: eremu objektiboa, zerga oinarria eta zerga tasak. Ardoaren eta edari hartzituen gaineko zerga: eremu objektiboa, sortzapena, zerga oinarria eta zerga tasak.

51. gaia.- Zerga bereziak (II). Tarteko produktuen zerga: eremu objektiboa; zergapetu gabeko kasuak; zerga oinarria; zerga tasa; arau hausteak eta zehapenak. Alkoholen eta edari deribatuen gaineko



zerga: eremu objektiboa; zerga oinarria; zerga tasa; artisau destilazioren araubidea; uztagileen araubidea; salbuespenak; itzulketak; kudeaketa arau bereziak; arau hausteak eta zehapenak. Hidrokarburoen gaineko zerga: eremu objektiboa; zergapetu gabeko kasuak; zerga oinarria; kontzeptua eta definizioak; zerga tasak; biokarburante eta bioerregaietarako zerga tasak; salbuespenak; itzulketak; erabilera profesionaleko gasolioarengatik itzulketak partziala; kudeaketa arau bereziak; erabilera debekatuak eta mugatuak; arau hausteak eta zehapenak.

52. gaia.- Zerga bereziak (III). Elektrizitatearen gaineko zerga: sorrera Espainiako zerga antolamenduan. Eremu objektiboa. Kontzeptua. Zerga oinarria eta tasa. Salbuespenak. Europar Batasunaren barruko argindar trukeei buruzko xedapen bereziak. Tabakogaien gaineko zerga kontzeptua. Eremu objektiboa. Ez-zergapetze kasuak. Zerga oinarria eta tasak. Salbuespenak. Itzulketak. Kudeaketako arau bereziak. Zenbait garraio bideren gaineko zerga: zerga gaia; salbuespenak, itzulketak eta murrizketak; subjektu pasiboak; sortzapena; zerga oinarria; zerga tasa; kuota kenkaria; zergaren likidazioa eta ordainketa; arau hausteak eta zehapenak. Ikatzen gaineko zerga.

53. gaia.- Energia elektrikoaren ekoizpen balioaren gaineko zerga. Energia nuklearra sortzearen ondorioz erregai nuklear gastatua eta hondakin erradioaktiboak ekoiztearen gaineko zerga. Erregai nuklear gastatua eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatuetan gordetzearen gaineko zerga. Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga. Gas, petrolio eta kondentsatuen erauzte balioaren gaineko zerga. Izaera, eremu objektiboa eta lurralde eremua. Zerga gaia. Zergadunak. Zerga oinarria. Zergaldia eta sortzapena. Karga eskala. Kuota osoa. Likidazioa eta ordainketa. Arau hausteak eta zehapenak.

54. gaia.- Aseguru primen gaineko zerga. Izaera, espazio eremua eta zerga ordainarazteko eskumenak. Subjektu pasiboa, zerga gaia, salbuespenak, zergaren sortzapena, zerga oinarria eta zerga tasa. Zergaren kudeaketa. Zerga ordezkariaren izendapena eta horren berri ematea zerga administrazioari. Jokoaren gaineko zerga. Izaera, aplikazio eremua eta ordainarazteko eskumena. Zerga gaia eta salbuespenak. Subjektu pasiboak. Erantzuleak. Zerga oinarria. Zerga tasa orokorra. Joko mota ezberdinei aplikatzekoa zaien zerga tasa. Sortzapena, betebeharrak eta zergaren ordainketa. Zehapenak. Joko jardueren gaineko zerga. Izaera, aplikazio eremua eta ordainarazteko eskumena. Zerga gaia eta zergapetu gabeko kasuak. Sortzapena. Zergadunak. Erantzuleak. Zerga oinarria. Karga tasak eta kuota osoa. Likidazioa eta ordainketa. Arau hausteak eta zehapenak.

55. gaia.- Toki ogasunen finantzaketa. zuzenbide pribatuko diru sarrerak, zerga propioak, itundutako eta itundu gabeko zergetako eta gainerako diru sarrera publikoetako parte-hartzea, dirulaguntzak, prezio publikoak eta kreditu eragiketak. Udalen gaineko erakundeak eta udalerria baino lurralde eremu txikiagoko erakundeak. Ondoko zerga hauen izaera, zerga gaia, salbuespenak, hobariak, subjektu pasiboa, kuota, sortzapena, zergaldia eta kudeaketa: Ondasun higiezinaren gaineko zerga, jarduera ekonomikoaren gaineko zerga, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga eta hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga.

ADUANA SISTEMA

56. gaia.- Aduana sistema (I). Salgaien aduana balioa. Transakzio balioa. Transakzio balioaren elementuak. Aduana balioaren barruan sartu behar ez diren elementuak. Aduana balioesteko metodo sekundarioak. Aduana-tarifa erkidea eta salgaien sailkapena aduana-tarifaren aldetik. Muga-tarifaren arloko informazio lotesleak. Salgaien jatorria: salgaien lehentasunik gabeko jatorria, lehentasunezko jatorria, jatorriaren froga. Jatorriaren arloko informazio lotesleak. Inportazioko eta esportazioko aduana zorra. Aduana zorraren sorrera. Zordunak. Aduanako ordezkariak. Zordun aniztasuna. Aduana



zorraren sorlekua. Arau orokorrak eta bereziak inportazio edo esportazio zergen zenbatekoa kalkulatzeko. Aduana zorraren bermeak. Jakinarazpena eta zorra hartzea. Ordainketa: epeak, ordaintzeko erraztasunak eta kreditu eta berandutze interesak. Aduana zorraren azkentzea. Itzulketa eta barkatzea.

57. gaia.- Aduana sistema (II). Salgaiak Europar Batasunaren aduana lurraldean sartzea. Sarrerako aitorten laburra. Salgaien aurkezpena, deskarga eta azterketa. Aldi baterako salgai gordailua: lege araubidea, epeak eta lekuak. Salgaien estatutua. Salgaiak aduana araubide baten barruan sartzea. Aduanako aitortea: motak eta sinplifikazioak. Aduanako aitortea aurkeztea salgaiaren aurkezpena baino lehenago. Aduanako aitorteen baliozabetzea eta zuzenketa. Aduana-izapide zentralizatua. Salgaien kontrola: arriskuen kudeaketa eta aduana kontrolak. Aduanako aitortea egiaztatzea. Altxatu ondoko kontrola. Aduana zorraren likidazioa. Dokumentuak eta datuak gordetzea. Aduana arloko elkarren laguntza.

58. gaia.- Aduana sistema (III). Salgaiak Europar Batasunaren aduana lurraldetik irten baino lehenagoko formalitateak. Salgaien irteerako formalitateak. Europar Batasunetik salgaiak esportatzea. Europar Batasunekoak ez diren salgaiak berresportatzea. Irteerako aitorten laburra: aurkezpena, zuzenketa eta baliozabetzea. Berresportazioaren jakinarazpena: aurkezpena, zuzenketa eta baliozabetzea. Praktika askeko izapidea eta inportazio zergetatik salbustea. Araubide bereziak: xedapen komunak. Iragaitza: kanpo eta barne iragaitza. Gordailua: xedapen komunak. Gordailu araubidea: Aduanako gordetegiak eta zona frankoak. Helmuga berezien araubidea: aldi baterako inportazioa eta azken helmuga. Hobekuntza araubidea: hobekuntza aktiboa eta hobekuntza pasiboa. Bazterrerara uztea eta suntsitzea.

BETEBEHAR FORMALAK ETA INFORMAZIOA EMATEKO BETEBEHARRAK

59. gaia.- Fakturazio betebeharren arautegia. Eragiketak dokumentatu beharra balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako. Faktura egin beharra; faktura egin beharrendaren salbuespenak; faktura erraztuak. Fakturak egitearen kasuak. Fakturen betekizunak. Fakturen bidalketa. Fakturak eta beste agiri batzuk gordetzea. Berehalako informazio hornidurako sistema. Dokumentazio beharrak beste tributu batzuen ondorioetarako eta beste eremu batzuetan. Arabako Foru Aldundiko zergadunen errolda bakarra. EBren barruko eragileen erregistroa, balio erantsiaren gaineko zergaren hileroko itzulketen erregistroa, fabrikazioaren gaineko zerga berezien lurralde erregistroa, borondatezko ordezkarien erregistroa, aldi baterako enpresa elkarten erregistroa, eta sozietateen gaineko zergako entitateen aurkibidea.

60. gaia.- Herri Ogasunari informazioa emateko betebeharrak (I). Hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteroko aitortea. Zergapekoak. Eragiketen urteroko aitortea aurkezteko betebeharrendaren salbuespenak. Aitorteen edukia. Aitortea betetzea. Egozpenerako irizpideak. Kudeaketa arauak. Arau hausteen zehaztapena. Kanaria uhartean, Ceutan eta Melillan egindako eragiketak. EBren barruko eragiketen laburpen aitortea. Laburpen aitortea aurkeztu beharra duten subjektu pasiboak. Laburpen aitorteen edukia. 349 ereduak aurkezteko lekua eta epea. Ordenagailu bidez zuzenean irakur daitezkeen 349 ereduaren euskarriaren identifikazioa eta horiek aurkezteko modua.

61. gaia.- Herri Ogasunari informazioa emateko betebeharrak (II). Kreditu entitateetako kontuen berri eman beharra. Mailegu eta kredituen eta eskudiru mugimenduen berri eman beharra. Kreditu edo zordunketa txartelen bidez egindako kobrantzen berri eman beharra. Balore, aseguru eta errenten berri eman beharra. Identifikazio fiskaleko zenbakia eman ez duten kontu edo bestelako eragiketen titularren berri eman beharra. Kreditu entitateek txekak jaulkitzearen berri eman beharra. Finantza-aktiboekin egiten diren zenbait eragiketaren berri eman beharra. Estatuaren zor publikoarekin,



lehenasunezko partaidetzekin eta beste zor tresna batzuekin egindako zenbait eragiketaren berri eman beharra. Entitateen eraketa, ezarketa, aldaketa edo azkentzearen berri eman beharra. Notarioek esku hartu duten egintza edo kontratuak jasotzen dituzten eskritura edo agiriak egilestearen berri eman beharra. Identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazi ez duten edo erabilitako ordainbideak identifikatu ez dituzten pertsona edo entitateen berri eman beharra. Nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako jarduera egitearen ondorioz hartutako dirulaguntza edo kalte ordainen berri eman beharra. Gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenen berri eman beharra. Ondasun higiezinekin zerikusia duten finantza eragiketen berri eman beharra. Hiri finken alokairuaren berri eman beharra.

62. gaia.- Herri Ogasunari informazioa emateko betebeharrak (III). Zerga egoitzaren aitortzea, kasu jakin batzuetan ez-egoiliarren izaera egiaztatzeko helburuaz. Finantza kontuen urteko informazio aitortzea elkarren laguntzaren eremuan. Errentak jasotzen dituzten eta egoitza Europar Batasuneko beste estatu batzuetan duten pertsona fisikoen identifikazioa eta egoitza. Pertsona estatubatuar jakin batzuen finantza kontuen urteko informazio aitortzea.

63. gaia.- Herri Ogasunari informazioa emateko betebeharrak (IV). Atzerrian diren ondasun eta eskubideen berri eman beharra: atzerrian kokatutako finantza entitateetako kontuak; atzerrian gordailatu, kudeatu edo lortutako balore, eskubide, aseguru eta errentak; atzerrian dauden ondasun higiezinak eta horien gaineko eskubideak; atzerrian dauden edo atzerriko herrialdeetako erregistroetan matrikulatuta edo jasota dauden ondasun higikorrek eta horien gaineko eskubideak. Lotutako entitate eta eragiketen informazio eta dokumentazioko herrialdez herrialdeko informazio aitortzea.

HERRI OGASUNAREN TEORIA

64. gaia.- Zerga: kontzeptua eta bereizketak. Zergak osatzen dituzten elementuak. Zerga printzipioak. Onuraren eta ordaintzeko ahalmenaren printzipioak. Ekonomia eraginkortasunaren kontzeptua; eraginkortasunaren eta merkatu orekaren arteko lotura; eraginkortasunaren helburua zergak diseinatzerakoan; zerga neutraltasuna eta kopuru finkoko zergak. Zergen ekitatea. Karga soberakina eta zergapetze egokiena. Zergapetze eraginkorreko arauak. Zergen birbanaketa helburuak. Zerga bilketaren kostuak. Iruzur fiskala: Kontzeptuak, ondorioak eta baldintzapenak.

65. gaia.- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga: kontzeptua eta izaera. Bilakaera. Errenta kontzeptu fiskala. Errenta, zerga ordaintzeko ahalmenaren neurri gisa. Errentaren gaineko zergaren gehikortasuna. Iturri desberdinen kontsiderazioa. Errenta irregularrak eta ondare aldaketak. Enpresa errentak. Salbuespenak eta gastu kengarriak. Zergadun unitatea: mugaketa arazoak eta haren tratamendurako alternatibak. Tarifak eta haien arazoak. Inflazioaren eragina zerga oinarrian, zergaren benetako gehikortasunean eta zerga bilketako atzerapen eta aurrerapenetan. Ekonomia eragina eta egungo balioespena.

66. gaia.- Sozietateen gaineko zerga: kontzeptua eta ezaugarriak. Justifikazioa. Zerga oinarria: arazoak eta hura zehazteko alternatibak. Karga tasak eta zerga onurak. Sozietateen gaineko zerga eta dibidendu politika. Zorpetzea-kapital berekiari buruzko erabakia eta sozietateen gaineko zerga. Zergaren eragina inbertsio mailan. Sozietateen gaineko zerga eta inflazioa. Zerga oinarria zehaztearen eta merkataritza kontabilitatearen arteko lotura: balantze bikoitzeko sistemak eta balantze bakarreko sistemak. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarekin integratzea.

67. gaia.- Zerga oinarriaren higaduraren eta mozkinen lekualdaketa aurkako ELGAren ekintza plana (BEPS proiektua) (I). Ekintza plana: Ekonomia digitalak zerga aldetik dakartzan desafioei heltzea. Mekanismo hibridoaren ondorioak neutralizatzea. Kanpotar enpresa kontrolatuei buruzko araudia indartzea. Intereseko kenkariaren eta beste finantza ordainketa batzuen bidezko zerga oinarriaren



higadura mugatzea. Zerga jardun kaltegarrien aurka borrokatzea, gardentasuna eta funtsa kontuan hartuz. Hitzarmenaren abusuzko erabilera galaraztea. Establezimendu iraunkorraren estatutuaren elusio itxurata galaraztea. Transferentzia prezioen emaitzak balio sorkuntzaren arabera direla ziurtatzea (ukiezinak, arriskuak eta kapitala, arrisku handiko beste transakzio batzuk).

68. gaia.- Zerga oinarriaren higaduraren eta mozkinen lekualdaketaen aurkako ELGaren ekintza plana (BEPS proiektua) (II). Metodoak ezartzea zerga oinarriaren higadurari eta mozkinen lekualdaketa buruzko eta hari aurre egiteko ekintzei buruzko datuak biltzeko eta aztertzeko. Zergadunei eskatzea zerga plangintza erasokorrerako beren mekanismoak ager ditzatela. Transferentzia prezioen gaineko dokumentazioa berraztertzea. Eztabaidak ebazteko bideak eraginkorrago bihurtzea. Alde anitzeko tresna bat garatzea. BEPS proiektua ezartzeko epeak eta metodologia.

69. gaia.- Europar Batasunaren Kontseiluaren zuzentarau proposamena, sozietateen gaineko zergako zerga oinarri komunari buruzkoa. Xedea, aplikazio eremua eta definizioak: Sozietate nagusia eta eskumendeko bateragarriak. Zerga ondorioetarako egoitza Batasunean duen zergadun baten establezimendua estatu kide batean. Zerga oinarria kalkulatzeko. Sarrera salbuetsiak. Gastu kengarriak. Beste elementu kengarriak. Hobaria hazkundera eta inbertsioagatik. Elementu ez-kengarriak. Interesak mugatzeari buruzko araua. Akziodunen, akziodun horien zuzeneko ahaideen edo enpresa elkartuen onurarako izandako gastua. Epekatzea eta kuantifikazioa. Ibilgetuaren amortizazioa. Galerak. Zerga oinarriaren araubidean sartzei eta handik irteteari buruzko arauak. Zergadunaren eta beste entitate batzuen arteko harremanak. Enpresa elkartuen arteko eragiketak. Abusuzko praktiken kontrako arauak. Entitate gardenak. Administrazioa eta prozedurak.

ZUZENBIDE ZIBILA

70. gaia.- Eskubide subjektiboa: eskubide subjektibo absolutuak eta erlatiboak. Egoera juridiko sekundarioak eta bitartekoak. Eskubideez baliatzea; haren mugak; eskubide abusuaren doktrinarekiko, onustearrekiko eta nortasun juridikoaren beloa altxatzearen teoriarekiko erreferentzia. Ukoa. Eskubideen eskuratzea, aldaketa, eskualdatzea eta azkentzea. Subrogazio erreala. Legitimazioa eta xedatzeko ahalmena. Eskubideen aldaketa, eskualdatzea eta azkentzea. Arauen indarraldiaren hasiera eta amaiera; isilbidez indargabetzea. Trantsizioko arauak. Atzeraeraginik ezaren printzipioa eta haren salbuespenak gure ordenamenduan.

71. gaia.- Pertsona. Pertsona fisikoaren sorrera. Jaiotzekoaren babes juridikoa. Pertsonaren heriotza. Nortasunaren eskubideak. Bizilekua. Gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna. Gaitasuna aldatzen duten inguruabarrak; egoera zibilen teoria. Adina. Adin nagusitasuna. Adingabearen egoera juridikoa. Emantzipazioa: motak eta ondorioak. Desgaitzea: kontzeptua, izaera eta motak. Desgaitasuna duten eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak babesteko araubide berezia. Hondatzaile deklaratzeko. Konkurtsopekoaren egoera juridikoa.

72. gaia.- Erregistro zibila: haren antolamendua; atalak. Idazpenak sustatzea. Idazpenen eraginkortasuna. Egoera zibilaren frogak. Idazpenen publizitatea eta zuzenketa. Nazionalitatea. Nazionalitatea eskuratzea, gordetzea, galtzea eta berreskuratzea. Nazionalitate bikoitza. Atzerritarren izaera juridikoa. Absentzia. Desagertuaren defentsa. Absentzia deklarazioa: baldintzak eta ondorioak. Heriotza deklarazioa: baldintzak eta ondorioak. Pertsona juridikoak: haien izaera eta motak. Pertsona juridikoen eraketa, gaitasuna, ordezkaritza, egoitza, nazionalitatea eta azkentzea. Fundazioen eta elkardeen alderdi zibilak. Gauzak. Motak: ondasun higikorrek eta higiezinak, jabari publikokoak eta jabetza pribatukoak. Osagaiak eta pertenenziak. Ondarea: motak.



73. gaia.- Egitate eta egintza juridikoa. Negozio juridikoa. Funtsezko elementuak. Borondatea: adostasunaren akatsak; Kode Zibilaren arauak adostasunaren akatsei buruz. Negozio juridikoen kausaren teoria orokorra. Kontratuen kausa; Kode Zibilaren arauak. Negozio abstraktuak. Kausarik gabeko aberastearen teoria. Negozio juridiko anomaloak: simulatuak, zeharkakoak, fiduziaroak eta iruzurrezkoak. Negozio juridikoaren forma. Kontratuen formaren azterketa berezia: eskritura publikoaren balio sustantiboa. Forma akatsak: haien ondorioak. Ordezkaritza negozio juridikoan. Zuzeneko eta zeharkako ordezkaritza. Borondatezko eta legezko ordezkaritza. Baliogabetu ezinezko ahalordea. Norbere buruarekiko negozioa (autokontratu). Ahalordearen ordezpena eta berrahaldetzea. Ordezkaritzaren azkentzea. Baliogabetzearen azterketa berezia. Azkendutako ahalordeak irautea. Berrespena.

74. gaia.- Eskubide erreala: izaera eta ezaugarriak. Kreditu eskubidearekin duen desberdintasuna. Eskubide errealen tipikotasuna. Espainiako legerian aitortutako eskubide errealak. Jabari eskubide erreala: hedadura eta edukia. Jabariaren babesa: erreibindikatze akzioaren azterketa berezia. Jabariaren mugak: xedatzeko debekuak eta auzotasun harremanak. Jabaria eskuratzeko moduak. Eskualdatze sistemak zuzenbide konparatuan. Espainiar zuzenbidea: titulua eta moduaren teoria. Tradizioa eta haren formak. Inskripzioak eskualdatzeetan duen funtzioa. Akzesioa: kontzeptua eta izaera juridikoa. Motak. Zuzeneko eta etengabeko akzesioa. Fruituen doktrinaren eta ondasun higiezinaren eragina duen akzesio eskubidearen azterketa. Usukapioa: baldintzak eta ondorioak, hari uko egitea. Okupazioa: kontzeptuak, baldintzak eta espezieak. Jabaria galtzeko moduak: baliogabetzea, desjabetzea, bazter uztea eta ukoa. Jabaria galtzea «a non domino» eskuratzeko ondorioz. Jabaria babesten duten ekintzak.

75. gaia.- Betebeharra; bilakaera eta izaera. Elementuak. Subjektuak, objektua eta lokarria. Betebeharren iturriak. Betebehar naturalak Kode Zibilean. Betebehar motak, subjektuaren eta lokarriaren arabera: aldebakarrekoak eta elkarrekikoak, mankomunatuak eta solidarioak. Betebehar hutsak, baldintzapekoak eta eperakoak. «Conditio iuris» delakoa. Betebehar motak subjektuaren arabera: bakarrak eta anizkunak (konjuntiboak, alternatiboak eta aukerakoak), positiboak eta negatiboak, espezifikokoak eta generikoak, zatigarriak eta zatiezinak, nagusiak eta erantsiak. Zigor-klausula.

76. gaia.- Betebeharrak betetzea. Ordainketa. Ordaintzeko era bereziak: ordainketen egozpena, ondasun lagapenaren bidez ordaintzea eta kontsignazioa. Zor den gauzaren galera. Zorra barkatzea. Eskubideen nahasketa. Konpentsazioa. Berritzea. Zorra bere gain hartzea. Betebeharra ez-betetzea, zordunari leporatu ahal zaiona: doloa eta errua. Zordunari leporatu ezin zaion ez-betetzea: ezusteko kasua eta ezinbestea. Zordunaren berandutzea. Hartzekodunaren berandutzea. Nahitaez betetzea era espezifikoa. Kalte eta galeren ordaina ematea. Zordunaren ondare erantzukizuna. Subrogazio akzioa. Baliogabetze akzioa edo akzio paulianoa. Atxikitze eskubidea.

77. gaia.- Kontratu: funtsa eta funtzioa. Kontratazio sistemak. Kontratugileen gaitasuna. Kontratuaren objektua. Forma. Kontratazio elektronikoa. Kontratu burutzea eta gauzatzea. Kontratuen interpretazioa. Kontratuak baliogabetu ezina. Kontratu berrikustea inguruabarren aparteko aldaketarengatik. Hirugarren baten aldeko hizpaketak. Kontratuen eraginkortasunik eza. Ez-izatea, deuseztasuna eta deuseztagarritasuna: kausak eta ondorioak. Kontratuen baieztapena. Aurreikusi ezinezko arriskua eta kontratuen berrikuspina. Hutsaltzea: hutsaldu daitezkeen kontratu eta ordainketak. Kontratu atipikoak, anizkunak eta mistoak. Prestamen kontratu edo aurrekontratu. Saltzeko promesa eta aukera-kontratu. Atxikitze kontratu; kontratazioaren baldintza orokorrak.

78. gaia.- Salerosketa kontratu. Izaera. Jabariaren eskualdatzea. Baldintza suntsiarazle esplizitua; jabaria erreserbatzeko ituna. Kontratu horren elementuak. Debekuak. Besteren gauzaren salmenta. Salerosketa burutzea; erresak. Saltzailearen betebeharrak: gauza zaintzea; arriskuen teoria. Saldutako gauza ematea. Saneamendua ebikzioagatik eta ezkutuko akatsengatik. Eroslearen betebeharrak:



prezioa ordaintzea eta interesak ordaintzea. Geroratze kasurako bermeak. Atzera-eskuratze arrunta: izaera, baldintzak eta ondorioak. Legezko eroslehetasunak eta atzera-eskuratzeak: atzera-eskuratzeen eta atzera-eskuratzaileen arteko lehenetsuna. Truke kontratua. Orubea geroko obraren truke ematea. Kreditu lagapena. Kontratu lagapena.

79. gaia.- Alokairu kontratua; funtzioa eta espezieak. Kode Zibilaren printzipioak eta oinarrizko arauak alokairu kontuan. Obra edo enpresa alokairuko kontratua. Zerbitzu alokairua: lan kontratuarekin duen desberdintasuna. Hiri alokairuen araubidea: hiri alokairuen Legearen aplikazio eremua, etxebizitzaren alokairua, arau orokorrak, kontratuaren iraunaldia, errenta, etxebizitzaren alokairuetako alderdien eskubideak eta betebeharrak, kontratuaren etendura, suntsiarazpena eta azkentzea, etxebizitzaz bestelako erabilera baterako alokairua: araubide juridikoa. Landa finken alokairuaren araubidea zuzenbide komunean eta legeria berezian.

80. gaia.- Obra gauzatzeko kontratua: kontzeptua, izaera, ezaugarriak eta motak. Komitentearen eta kontratistaren betebeharrak. Azkentzea. Kontratistaren erantzukizunak ezkutuko akatsengatik eta obraren aurriagatik. Kontratistaren erantzukizunak besteren egitateengatik. Azpikontratistak, enplegatuek eta hornitzaileak. Apartzeria kontratua. Mailegu kontratua; horren espezieak, komodutua, prekariora, mutuo kontratua, lukuruzko maileguen gaineko legeria, abusuzko klausulak maileguetan. Mandatu kontratua: haren izaera eta espeziea, eraketa eta ondorioak, mandatuaren azkentzea, bitartekotza edo artekaritza kontratua.

81. gaia.- Gordailu kontratua: haren izaera eta espezieak, gordailu arrunta, gordailu irregularra eta beharrezkoa, bahitura, ostatatze eta erakusketa kontratuak. Sozietate kontratua: izaera eta motak, eraketa, kontratuaren edukia, sozietatearen azkentzea. Fidantza kontratua: motak, osatzen dituzten elementuak, hartzekodunaren eta fidatzailearen arteko lokarriak, zordunaren eta fidatzailearen artekoak eta fidatzailekideen artekoak, azkentzea. Ausazko kontratuak: mantenu kontratua, jokia eta apustua, bizi arteko errenta, transakzio kontratua, arbitraje-hitzarmena.

82. gaia.- Euskal zuzenbide zibila. Euskal zuzenbide zibila inspiratzen dituzten iturri eta printzipioak. Euskal lege zibilaren aplikazio eremua. Ondare zuzenbidearen printzipioak. Testamentu bidezko oinordetza: xedapen orokorrak, hilzoriko testamentua edo «hilburukoa», testamentu mankomunatu bidezko oinordetza, komisario bidezko oinordetza. Testamentua egiteko askatasunaren mugak: senipartea, jaraunspenaren kalkulua eta seniparteen ordainketa, tronkalekotasuna Bizkaian, Aramaion eta Laudion –xedapen orokorrak, lehenetsunez eskuratzeko tronkaleko eskubideak–, testamentua egiteko askatasuna Arabako Aiara ibarrean, baserriaren inguruko arau bereziak Gipuzkoan. Oinordetza itunak: xedapen orokorrak, oinordetza instituzioiko itunak. Legezko edo testamentu gabeko oinordetza. Oinorde izateko era desberdinetako xedapen komunak. Ezkontzako ondasun araubidea: legezko araubidea, ondasunen foru komunikazioaren araubidea.

MERKATARITZA ZUZENBIDEA

83. gaia.- Merkataritza zuzenbidearen edukia. Merkataritza egintza. Analogiazko merkataritza egintzak. Egintza mistoak: Merkataritza enpresa. Merkataritza zuzenbidearen iturriak. Merkatariairen kontzeptu doktrinal eta legala. Banakako merkataria. Ezgaitasunak eta debekuak. Merkataria atzerritarra. Ohikotasuna eta profesionaltasuna. Publizitatea merkataritza zuzenbidean. Merkataritza erregistroa. Merkataritzako gauzen doktrina orokorra. Jabetza industrial. Patenteak eta markak: Patente eta Marken Espainiako Bulegoa. Nazioarteko babes araubide juridikoa. Lehia zuzenbidea. Lehia desleiala; publizitatearen eta kontsumoaren araubidea. Lehiaren defentsa. Aldi baterako enpresa elkarteak. Enpresaburuen kontabilitatea. Liburuak. Betekizunak. Liburuaren froga balioa eta haien ezagutza. Urteko kontuak.



84. gaia.- Kreditu tituluak: kontzeptua eta ezaugarriak. Motak. Titulu izendunak. Agindurako tituluak. Kanbio letra: funtzio ekonomikoa eta izaera juridikoa. Letraren jaulkipena eta forma. Endosatzea. Onarpena Abala. Epemuga eta ordainketa. Protestoa. Protestoaren ordezkotako deklarazioa. Kanbio erantzukizuna. Kanbio akzioak eta salbuespenak. Akzioen azkentzea eta iraungitzea. Ordaindukua. Txekoa: txekearen kontzeptua, jaulkipena, zirkulazioa, aurkezpena eta ordainketa. Edukitzailearen akzioak ordainketarik ezean. Banku kontratuak oro har. Kontu korrontearen azterketa, kreditua irekitzea, maileguak eta banku deskontua. Bankuetako gordailuak. Baloreen pignorazioa. Dokumentu kredituak.

85. gaia.- Merkataritzako betebeharrak eta kontratuak. Merkataritza komisioa. Ordezkaritza merkataritza zuzenbidean. Merkataritzako salerosketa kontratua. Salerosketa bereziak. Leasing. Laguntza teknikoko kontratua. Lankidetzako kontratuak: komisioa, frankizia, agentzia, artekaritza eta factoring. Merkataritza kontu korronteko kontratua. Partaidetzako kontuen kontratua. Merkataritza mailegua eta gordailua. Gordailu biltegi orokorren konpainiak: tradizio tituluak eta «warrants». Aseguru kontratua: kontzeptua, izaera eta araudia. Kalteen aurkako aseguruak: aseguru motak eta alderdien betebeharrak. Kontratuaren azkentzea. Bizi aseguruak. Bizi aseguruaren onuradunarekiko erreferentzia berezia. Berrasegurua.

86. gaia.- 22/2015 Legea, uztailaren 20koa, kontu auditoretzarena. Aplikazio eremua, objektua, araubide juridikoa eta definizioak. Kontu auditoretza: kontu auditoretza motak; kontu auditoretza burutzeko betekizunak; kontu auditoretzaren jarduna burutzea. Kontu auditoretza interes publikoko entitateetan. Gainbegiratze publikoa: gainbegiratze eginkizuna; Kontabilitateko eta Kontu Auditoretzako Institutua; Europar Batasuneko estatuetan eta beste herrialde batzuetan baimendutako auditore eta auditoretza sozietate nahiz bestelako entitateei aplikatzekoa zaien gainbegiratze araubidea; nazioarteko lankidetzak. Arau hausteen eta zehapenen araubidea.

87. gaia.- Kapital sozietateak (I). Xedapen orokorrak: kapital sozietateak; izena, nazionalitatea eta egoitza; pertsona bakarreko sozietateak; sozietate taldeak. Kapital sozietateen eraketa: eraketa eskritura; erregistroko inskripzioa; sozietate anonimoaren segidako eraketa; sozietatearen deuseztasuna. Bazkideen ekarpenak: diruz bestelako ekarpenen balioespena sozietate anonimoan; erantzukizuna diruz bestelako ekarpenengatik; ordainketa. Erantsitako prestazioak. Sozietateko partaidetzak eta akzioak: bazkidearen eskubideak; bazkideen erregistro liburua eta partaidetzak eskualdatzeko araubidea erantzukizun mugatuko sozietateetan; ordezkaritza eta akzioen eskualdatzea; sozietateko partaidetzen edo akzioen gaineko jabeakidetzak eta eskubide errealak; norbere partaidetzak eta akzioekiko negozioak.

88. gaia.- Kapital sozietateak (II). Batzar Orokorra: batzarraren eskumena; batzar motak eta deialdia; batzar unibertuala; bertaratzea, ordezkaritza eta botoa; batzarraren eraketa eta erabakiak hartzea; batzarraren akta eta erabakien aurka egitea. Sozietatearen administrazioa. Urteko kontuak: formulazioa eta edukia; memoria; kudeaketa txostena; urteko kontuak egiaztatzea; urteko kontuak onartzea, gordailatzea eta argitaratzea. Sozietatearen estatutuen aldakuntza: sozietate kapitalaren gehikuntza eta murrizketa; aldi bereko kapital murrizketa eta gehikuntza. Bazkideak banantzea eta kanpo uztea. Desegitea eta likidazioa. Enpresa berria sozietatea. Europako sozietate anonimoa. Sozietate anonimo kotizatuak.

89. gaia.- Merkataritza sozietateen eraldaketa. 3/2009 Legea, apirilaren 22koa, merkataritza sozietateen egiturazko aldaketena. xedapen orokorrak; eraldaketa; bat-egitea –mugaz haraindiko bat-egitearen kontzeptua–; zatiketa; aktibo eta pasibo osoaren lagapena; jarduera adarraren ekarpena; sozietatearen egoitza beste estatu batera aldatzea.



90. gaia.- Hartzekodunen konkurtsoa. Konkurtsoaren deklarazioa eta konkurtsoaren administrazioa. Konkurtsoaren deklarazioaren ondorioak: zordunarengan dituen ondorioak; hartzekodunengan dituen ondorioak; kontratuetan dituen ondorioak; masa aktiboari kalte egiten dioten egintzetan dituen ondorioak. Konkurtsoaren administrazioaren txostena eta konkurtsoaren masa aktiboaren eta pasiboaren zehaztea. Txostena argitaratzea eta haren aurka egitea. Hitzarmen edo likidazio faseak: hitzarmen fasea; likidazio fasea. Konkurtsoaren kalifikazioa: kalifikazio atala. Konkurtsoaren amaiera eta berririkitzea. Prozesu arau orokorrak, prozedura laburtuarenak eta errekurso sistemarenak. Epaiketaz kanpoko ordaintze akordioa. Zerga kredituak konkurtso prozeduretan.

FINANTZA SISTEMA

91. gaia.- Espainiako finantza sistemaren egitura instituzionala. Diru agintaritza. Bitartekari finantzarioak. Finantza merkatuak. Espainiako Bankua. Zuzendaritza organoak. Funtzioak. Kreditu entitateen zuzendaritza gainbegiratzea. Diru politikaren betearazpena. Banku Zentralen Europako Sistema eta Europako Banku Zentrala. Kreditu entitateak. Kreditu entitateen jarduna gauzatzea Europar Batasunaren esparruan. Kaudimenaren kontrola eta gutxienezko erreserben sistema. Kaudimen arauak eta kontrol arauak. Gordailuak bermatzeko funtsak. Bankuak berregituratzeko prozesua: banku berregituratze ordenaturako funtsa eta babes sistema instituzionala. Bankuak. Aurrezki kutxak. Gobernu organoak. Autonomia erkidegoen eskumenak. Banku fundazioak. Kreditu kooperatibak. Diru elektronikoko entitateak.

92. gaia.- Banku operatiba: banku mailegua, kreditu kontuaren irekitzea eta banku deskontua. Sinadura arriskua: abala eta dokumentu kreditua. Gordailu ziurtagiriak eta banku ordaindukoak. Aktiboaren aldi baterako lagapenak. Banku konpentsazioa. Banku-sekretua. Bestelako bitartekari eta laguntzaile finantzarioak. Kreditu establezimendu finantzarioak. Haien operatiba: leasing eta factoring. Elkar bermatzeko sozietateak. Partaidetzako finantzaketako plataformak. Arrisku-kapitaleko sozietateak eta funtsak. Tasazio sozietateak. Kalifikatze agentziak. Inbertsio kolektiboko erakundeak. Ondasun higikorretan inbertitzeko sozietateak eta funtsak. Higiezinetan inbertitzeko sozietateak eta funtsak.

93. gaia.- Balore merkatuaren legea (I). Aplikazio eremua. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala. Balore negoziagarriaren kontzeptua. Kontuko idatzoharren bidez ordezkaturako balioak. Baloreen lehen mailako merkatua. Obligazioen edo zorra aitortu edo sortzen duten bestelako balioen jaulkipenak. Baloreen bigarren mailako merkatu ofizialak. Balore burtsak. Zor publiko anotatuaren merkatua. Gerokoaren bigarren mailako merkatu ofizialak eta kontuko idatzoharren bidez ordezkaturako aukerak. Bigarren mailako merkatu ofizialetako partaidetza. Bigarren mailako merkatu ofizial bateko negozioa eta eragiketak.

94. gaia.- Balore merkatuaren legea (II). Baloreen konpentsazioa, likidazioa eta erregistroa eta kontratu osteko azpiegiturak. Aldizkako informazio emateko jaulkitzaileen betebeharrak. Partaidetza esanguratsuen eta autozorroaren inguruko informazio betebeharrak. Eroste eskaintza publikoak. Inbertsio zerbitzuen enpresak. Balore sozietateak eta agentziak. Zorroa kudeatzeko sozietateak. Inbertsioak bermatzeko funtsa. Gainbegiratze, ikuskatze eta zehapen araubidea.

LAN ZUZENBIDEA

95. gaia.- Lan zuzenbidearen iturri sistema: ezaugarri orokorrak. Lan arauen tipologia. Arlo honetako eskumenen banaketa Estatuaren eta autonomia erkidegoen artean. Lan ordenantza: indarra. Hitzarmen kolektiboak: kontzeptua, eraginkortasuna eta motak. Nazioarteko lan araua. Lan arauen aplikazioa: antolamendu printzipioak. Legearen eta hitzarmen kolektiboaren arteko lotura. Estatuaren



arauen eta arau konbentzionalen talka eta konkurrentzia. Baldintza onuragarrienaren printzipioa. Eskubideei uko egin ezinaren eta lurraldetasunaren printzipioak lan arauetan.

96. gaia.- Lan kontratua: kontzeptua, izaera juridikoa, adostasuna, objektua eta kausa. Lan kontratuaren sorrera. Frogaldia. Forma kontratazioan; ondorioak. Lan kontratuaren froga. Langilea: kontzeptu juridikoa eta lege kontzeptua. Enpresaburua: kontzeptua eta motak. Enpresaburuak tartean jartzea. Obra eta zerbitzuen kontratak eta azpikontratak. Legez kanpoko langile lagapenarekiko erreferentzia. Aldi baterako laneko enpresak. Lan kontratu motak, kontratuaren iraupenaren arabera. Aldi baterako kontratuak. Elkarlanarekiko eta taldeko kontratuarekiko erreferentzia; prestakuntza kontratuak; urrutiko lana. Oinarritzko eskubideak. Lanbide maila. Lan prestazioa betetzea. Arreta, obediencia eta onuste eginbeharrak.

97. gaia.- Lan kontratuaren modalitateak. Muga gabeko aldirako lan kontratua eta aldi baterakoa. Ekintzaileei laguntzeko muga gabeko aldirako lan kontratua. Obra edo zerbitzu jakin baterako kontratua. Behin-behineko kontratua ekoizpenaren gorabeherengatik. Bitarteko kontratua. Lanaldi partzialeko lan kontratua. Aldizkako lan kontratu finkoa, txandakoa eta erretiro partzialekoa: araubide juridikoa. Desgaitutako langileentzako kontratazio mugagabea eta aldi barerakoa: betekizunak, formalizazioa, pizgarriak eta beste ezaugarriak. Enplegu zentro bereziak: araubide juridikoa. Desgaituentzako lanpostu erreserba. Prestakuntza kontratuak. Praktikaldiko lan kontratua. Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua. Kontratu hauen ezaugarri komunak. Elkarlana eta taldeko kontratua. Urrutiko lana: berezitasunak eta araubide juridikoa.

98. gaia.- Lan kontratuaren aldaketak. Tipologia. Enpresaren titulartasuneko ondorengotza. Mugikortasun geografikoa. Lan kontratuaren etendura. Lan kontratuaren azkentzea: azkentzeko arrazoiak. Kontratuaren amaiera konbentzionala. Langilearen heriotza edo ezgaitasunagatik azkentzea. Enpresaburuaren heriotza, erretiroa eta ezgaitasuna, eta kontratugile nortasunaren azkentzea. Langilearen borondatez azkentzea. Arrazoi objektiboengatik azkentzea. Diziplinazko kaleratzea. Kaleratze kolektiboa. Lan kontratutik sortutako akzioen preskripzioa eta iraungitzea.

99. gaia.- Lan harreman bereziak. Goi-zuzendaritzako kideak. Etxeko zerbitzariak. Enplegu zentro berezietan lan egiten duten desgaituak. Kirolari profesionalak. Ikuskizun publikoetako artistak. Enpresaburu baten edo gehiagoren kontura eta haien arriskua eta mentura hartu gabe merkataritza eragiketetan esku hartzen duten pertsonak. Espetxeetako presoak. Osasun zientzietako espezialistak prestatzeko egoitza. Abokatu bulego indibidual nahiz kolektiboetan lan egiten duten abokatuak. Norberaren konturako langilearen estatutua: aplikazio eremua, lanbide araubidea eta garapenerako arauak.

GIZARTE SEGURANTZA

100. gaia.- Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean. Altarekin parekatzen diren egoerak. Okerreko egintzen ondorioak. Ofiziozko altak. Kotizazioa. Kuota: kontzeptua eta izaera juridikoa. Subjektu behartuak eta subjektu erantzuleak. Kuoten ordainketako erantzukizun solidarioa eta subsidiarioa: kasuak. Kotizatze behararen sorrera eta iraupena. Hitzarmen berezia Gizarte Segurantzaren Preskripzioa. Kredituen hurrenkera eta okerreko diru sarreren itzulketa.

101. gaia.- Araubide orokorra: kotizazio oinarriak. Kontzeptua eta kanpo utzitakoak. Kotizazio oinarrien zehaztapena. Kotizazioa egoera hauetan: aldi baterako ezgaitasuna, amatasuna, aitasuna, haurdunaldiko arriskua, edoskitze aldi naturaleko arriskua, ordainsariak hartu gabe altan egotea, langabezia, enplegu-aniztasuna, jarduera-aniztasuna, lanaldi partzialeko kontratua, legezko



zaintzarenatik murriztutako lanaldia eta lanuzte partziala. Kotizazio tasa bakarra. Langabeziako kotizazioa. Soldatak bermatzeko funtsa eta Lanbide Heziketa. Kuotaren murrizketa kanpo utzitako kontingentziengatik. Laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen araubideko kotizazioa. Aparteko orduengatik kotizazio osagarria.

102. gaia.- Kotizazioa eta bilketa. Gizarte Segurantzako kuoten hobariak eta murrizketak. Borondatezko aldiko bilketa: kuotak likidatzeko epeak, lekua eta modua. Ordainketa geroratzea eta zatikatzea. Arauzko epean ez kotizatzea: zorrak eskatzea eta errekareruak. Derrigorrezko aldiko bilketa. Arau erregulatzaileak. Exekuzio tituluak. Premiamenduen aurka egiteko arrazoiak. Bahitura. Bahitutako ondasunen besterentzea. Hirugarrengotza.

EUROPAR BATASUNAREN ZUZENBIDEA

103. gaia.- Europar Batasuna: printzipioak eta xedeak. Batasunaren eskumen kategoriak eta eremuak. Subsidiarioritasun printzipioa. Eskumen esleituak. Europar Batasunaren erakunde sistema. Europako Parlamentua: legegintzako prozedurak. Kontseilu Europarra: erabakiak egokitze prozesua – Kontseiluko lan taldeak eta Ordezkaritza Iraunkorren Lantaldea–. Europako Batzordea; legegintzako ekimena eta betearazpena. Kontuen Epaitegia. Ekonomia eta Gizarte Komitea. Eskualdeetako Lantaldea.

104. gaia.- Batasunaren zuzenbidearen iturriak. Jatorrizko zuzenbidea: Europar Batasunaren Tratatuak eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak. Zuzenbide eratorria: Arautegia, zuzentzarauak, erabakiak. Legegintzako prozedura arrunta. Egintza delegatuak eta betearazte egintzak. Europar Batasunaren zuzenbidearen printzipio orokorrak: berdintasunaren, bidezko konfiantzaren, segurtasun juridikoaren eta proportzionaltasunaren printzipioak. Batasunaren zuzenbidea eta estatuen zuzenbidea. Zuzeneko eragina. Lehetasuna. Batasunaren zuzenbidearen aplikazio deszentralizatua. Estatu kideen ondare erantzukizuna Batasunaren zuzenbidea urratzekotan.

105. gaia.- Europar Batasunaren jurisdikzio sistema. Justizia auzitegia. Auzitegi Orokorra. Osaera eta prozedura arau orokorrak. Ez-betetzearen aurkako errekurtsioa. Deuseztatzeko errekurtsioa. Ekintzarik ezaren aurkako errekurtsioa. Arauzko prejudiziala –xedapen orokorrak, prozedura prejudizial lasterra, presako prozedura prejudiziala, doako laguntza juridikoa–. Kasazio errekurtsioa –erantzun, erreplika eta duplika idazkiak–. Auzitegi Orokorren ebazpenak berraztertzea.

106. gaia.- Europar Batasunaren finantzaketa. Baliabide eta finantzaketa iturri nagusiak. Urte anitzeko finantza esparrua. Urteko aurrekontuak: aurrekontu prozedura, exekuzioa eta deskargua. Espainiaren finantza egoeraren bilakaera. Kontuen Epaitegia. Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoa. Ekonomia eta Diru Batasuna: aurrekariak eta eraikitze prozesua. Erakunde sistema: Europako Banku Zentrala eta ECOFIN. Europako diru politika: helburuak eta tresnak. Eurozonaren krisia: erreskateak, finantza tresna eta zerga-kontrolako tresna berriak, eta kontrol agintaritza berriak. Banku batasuna.

107. gaia.- Barne merkatua. Salgaien zirkulazio librea. Langileen zirkulazio librea eta gizarte politika. Kokatzeko askatasuna eta zerbitzuak emateko askatasuna. Kapitalen zirkulazio librea. Barne merkatua eta lehia politika. Europar lehia zuzenbidea. Estatu laguntzak: Neurri bati Europar zuzenbidearekin bateratu ezinako estatu laguntza irizteko betekizunak, Europar zuzenbidearekin bateragarriak diren edo izan daitezkeen laguntzak, estatu laguntza bat Tratatuarekin bateraezina izatearen ondorioak.



KONTABILITATEA

108. gaia.- Kontabilitate plan orokorra (I). Kontabilitatearen esparru kontzeptuala. Kontabilitate printzipioak. Urteko kontuen elementuak. Urteko kontuetako elementuak kontabilitatean erregistratu edo aitortzeko irizpideak. Balioespen irizpideak. Erregistro eta balioespen arauak. Kontabilitatearen esparru kontzeptualaren garapena. Ibilgetu materiala: Ibilgetu materialari buruzko arau bereziak. Higiezineta inbertsioak. Ibilgetu ukiezina: Ibilgetu ukiezinari buruzko arau bereziak. Aktibo finkoak eta besterendu daitezkeen elementu taldeak, saltzeko mantenduak.

109. gaia.- Kontabilitate plan orokorra (II). Erregistro eta balioespen arauak. Alokairuak eta antzeko izaera duten beste eragiketa batzuk. Finantza tresnak. Izakinak. Atzerriko dirua. Balio erantsiaren gaineko zerga, Kanaria uharteetako zeharkako zerga orokorra eta zeharkako beste zerga batzuk. Mozkinen gaineko zerga. Diru sarrerak salmentengatik eta zerbitzuak emateagatik. Hornidurak eta kontingentziak. Pasiboak langileen epe luzerako ordainsariengatik. Ondare tresnetan oinarritutako ordainketak egiten diren eragiketak. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak. Negozioen konbinazioak. Baterako negozioak. Taldeko enpresen arteko eragiketak. Kontabilitate irizpideen aldaketak, kontabilitate akatsak eta zenbatespenak. Ekitaldia itxi eta geroko egitateak.

110. gaia.- Kontabilitate plan orokorra (III). Urteko kontuak egiteko arauak. Arau komunak. Urteko kontuen eredu normalak. Balantzea. Galeren eta irabazien kontua. Ondare garbiaren aldaketen egoera. Onartutako sarrera eta gastuen egoera. Ondare garbiaren aldaketen guztizko egoera. Eskudiru fluxuen egoera. Txostena: Memoriaren edukia. Urteko kontuen eredu laburtuak. Kontuen taula. Definizioak eta kontabilitate erlazioak. 1. taldea: Oinarrizko finantzaketa. 2. taldea: Aktibo finkoa. 3. taldea: Izakinak. 4. taldea: Hartzekodunak eta zordunak merkataritza eragiketengatik. 5. taldea: Finantza kontuak. 6. taldea: Erosketak eta gastuak. 7. taldea: Salmentak eta sarrerak. 8. taldea: Ondare garbiari egotzitako gastuak. 9. taldea: Ondare garbiari egotzitako sarrerak.

111. gaia.- Sozietateen kontabilitatea (I). Sozietate anonimoaren eraketa: harpidetza eta gutxieneko ordainketa, sozietatea aldi berean sortzea, diru ekarpenak, diruz bestelako ekarpenak, akziodun berankorrek. Sozietate anonimoaren kapital aldakuntzak: kapitala gehitzeko modalitateak eta erak (diru ekarpenekin, diruz bestelako ekarpenekin, kreditu konpentsazioaren bidez, obligazioak akzio bihurtuz, erreserben edo mozkinen kapitalizazioaren bidez). Kapital murrizketaren eskakizunak. Murrizketaren modalitateak eta helburuak (ekarpenak itzuliz, dibidendu pasiboak barkatuz, legezko erreserba edo borondatezko erreserbak eratuz edo handituz, ondarearen eta kapitalaren arteko oreka berrezarrituz).

112. gaia.- Sozietateen kontabilitatea (II). Sozietate anonimoaren desegitea, likidazioa eta eraldaketa: desegitearen arrazoiak, likidazio aldia, sozietatearen ondasunen zatiketa, sozietatearen eraldaketa. Ekitaldiko emaitza kalkulatzeko eta mozkinen gaineko zerga kontabilizatzea. Emaitzaren aplikazioa: banaketa oinarria, mozkinen banaketa sozietate anonimoen Legearen arabera, aurreko ekitaldietako galeren konpentsazioa, legezko erreserba, bestelako erreserbak, dibidendu arruntak, botorik gabeko akzioenak, konturakoak, lehentasun ordena emaitzen banaketan, administratzaileen partaidetza, fundatzaile-parteeak. Finantza tresnak: finantza-pasiboak. Finantza tresnak: finantza-aktiboak. Euroaz bestelako dirutan egindako eragiketak.

113. gaia.- Sozietateen kontabilitatea (III). Negozioen konbinazioak: bat-egiteak eta zatiketak; enpresa baten negozio multzoko edo negozio jakin bateko edo batzuetako ondare elementuak eskuratzea; kapitaleko partaidetzak eskuratzea, erosketa bidez edo diruz bestelako ekarpenen bidez; inbertsiorik egin gabe sozietate baten kontrola hartzeko bide diren beste eragiketa edo gertaera batzuk.



114. gaia.- Kostuen kontabilitatea (I). Kudeaketa kontabilitatearen esparrua. Kanpoko eta barneko eremuen arteko kontabilitate koordinazioa. Oinarrizko kontzeptuak, kontzeptu tekniko eta ekonomikoak. Kostuaren sortze prozesua. Kostuen sailkapena izaeraren arabera. Kostuen birsailkapena. Zuzeneko kostuak eta zeharkako kostuak. Kostu finkoak eta kostu aldakorak. Kostu-bolumena-mozkina analisia. Kostu estandarrak, kostu historikoak eta oraingo kostuak. Jarduera kostuak eta jarduera baxuaren kostuak. Gaitasun mailaren analisia. Materialen kostua eta kudeaketa. Langileen kostua eta kudeaketa. Fabrikazio kostu orokorrak. Amortizazioen kostua. Kostuen kontabilitate zikloa. Oinarrizko kontabilitate eredia. Kontuak eta fluxuak. Ekoizpen kostu unitarioa kalkulatzeko printzipioak eta oinarrizko metodoak. Zeharkako fabrikazio kostuen egozpen sintetikoa, analitikoa eta arrazionala. Kostu guneak zehaztea. Kostuen diagramak eta estatistikak. Kostu gune nagusiak eta lagungarriak. Kostu guneen arteko lotura eta elkarren menpekotasuna. Ekoizpen baliokidearen kontzeptua. Uneko ekoizpen izakinaren balioespena. Galdutako unitateen arazoak.

115. gaia.- Kostuen kontabilitatea (II). Aukera-kostuak kalkulatzeko. Aukera-kostuen kontabilitate eredia. Ekoizpen homogeen masiboa. Prozesuaren arabeko kostuen sistema. Ekoizpen anizkuna. Atalkako kostua. Eskaeraren arabera fabrikatzea. Fabrikatzeko aginduak. Unitate lokabeen fabrikazioa. Baterako ekoizpenaren prozesuaren ezaugarriak. Baterako kostuak banatzeko irizpideak. Koproduktuak, azpiproduktuak eta hondakinak. Material berreskuratuak. Kostu aldakorren sistema: eredu sinplifikatua, eredu garatua, kostu aldakorren eta kostu betearen sistemen konparazioa, kostu aldakorren sisteman oinarritutako erabakiak. Jardueretan oinarritutako kostu eta kudeaketa sistemak: ABC eta ABM sistemen izaera eta edukia, kostu-eragileen ezaugarriak, produktuaren kostua kalkulatzeko metodologia, balio katearen analisia eta enpresako jardueren kudeaketa, ABC eta ABM sistemen abantailak eta alde txarrak. Kostu estandarren sistema: kostu estandarren kontzeptua, ekoizpen laginketa eta aurrekontu malgua, desbideratzearen azterketa, kostu estandarren abantailak eta alde txarrak, kostu estandarrak eta inbentarioak, kanpoko eta barneko arazoak.

116. gaia.- Finantza egoeren analisia: finantza analisiaren kontzeptua eta ezaugarriak, analisi arloak, analisi kualitatiboa. Finantza eta ondare analisia: maniobra-funtsaren analisia, epe laburrerako kaudimena, epe luzerako kaudimena, batez besteko heldze aroa. Errentagarritasun analisia: marjina eta errotazioa, mozkinak sortzeko gaitasunaren analisia, errentagarritasun ekonomikoaren analisia, finantza errentagarritasunaren analisia, palanka-efektu operatiboa, hazkunde orekatua, EBITDA, oreka-puntua edo errentagarritasun atalasea.

117. gaia.- Eskudiru fluxuen analisia: ustiatze jardueretako eskudiru fluxuak, inbertsio jardueretako eskudiru fluxuak, finantzaketa jardueretako eskudiru fluxuak, truke-tasen aldakuntzen eragina, eskudiru fluxuen egoeraren eredia. Enpresa kotizatuen analisia: burtsa, inbertitzaileen jokaera, burtsako ratio nagusiak. Analisi prebisionala: emaitzen kontu prebisionala, diruzaintzako aurrekontua, egoera balantze prebisionala.

118. gaia.- Finantza egoeren baterakuntza: legeria aplikagarria, baterakuntzaren definizioa, baterakuntzaren subjektuak (nagusia, menpekota, taldeaniztuna, elkartua, gutxiengokoa), taldearen helmena eta bateratzeko betebeharra. Baterakuntza metodoak: metodoen deskribapena, eransketa eskemak, metodoen konparaziozko analisia. Integrazio orokorra: homogeneizazioa, ondare ezabatzea, sozietate bateratuetako erreserbak, gutxiengoko interesak, bestelako ezabatzeak, erreserbak bihurtuta aldeengatik. Proporziozko integrazioa: proporziozko integrazioaren berezitasunak, proporziozko integraziozko metodoaren aplikazioa. Baliokidetzan jartzea: homogeneizazioa (berezitasunak integrazio orokorraren aldean), ondare ezabatzea, erreserba baliokidetzan jarritako sozietateetan, bestelako ezabatzeak, erreserbak bihurtuta aldeengatik, erreserbak mantentzea eta salmentaren emaitzara doitzea, gutxiengoko interesak.



119. gaia.- Kontu auditoretza (I). Espainiako auditoretza araudia. Kontu auditore izateko arauak. Etika arauak eta independentzia. Espainian kontu auditoretzaren kalitate kontrolari buruz aplikatzekoa den araudia. Nazioarteko auditoretza arauak. Arriskuaren kudeaketa eta barne kontrola. Auditoretza kontratua. Barne kontrola. Auditoretza lanaren plangintza. Garrantzi erlatiboa. Entitatearen jarraitutasuna. Akatsak, irregulartasunak eta araudi aplikagarriaren ez-betetzeak. Ebidentzia lortzea. Auditoretza lanaren dokumentazioa eta artxiboa. Hirugarrenen baieztapenak.

120. gaia.- Kontu auditoretza (II). Kontabilitate partida hauen auditoretza: ibilgetu materiala, ibilgetu ukiezinak, higiezinak inbertsioak, alokairuak eta antzeko izaera duten eragiketak, finantza tresnak, bezeroak, kobratzeko kontuak eta baliabide propioak, diruzaintza, finantza-pasiboak, hornitzaileak eta ordaintzeko kontuak, hornidurak, kontingentziak, ekitaldia itxi eta geroko egitateak, ondare garbia eta eskudiru fluxuen egoera, emaitzen kontua. Taldeko enpresak, taldeaniztunak eta elkartuak: lotutako eragiketak, txostenak jaulkitzea. Zerga arloko auditoretza.

121. gaia.- Sektore kontabilitatea (I). Ardogintza sektoreko sozietateen kontabilitatea: ardogintza jarduerarekin lotura daukan ibilgetu materiala, ardogintza jarduerarekin lotura daukaten ibilgetu ukiezinak, ardogintzarekin lotura daukaten izakinak, alkoholaren gaineko zerga berezien kontabilizazioa, nekazaritza jarduerarekin lotura daukan ibilgetu materiala, lagatuko nekazaritza lurretan egindako inbertsioetarako hornidura, lursailak lehengoratzeko lanetarako hornidura, hondar-balio negatiboagatik hornidura, beren jarduera mahats ekoizpena duten enpresetako izakinak, nekazaritzako arriskuaren kontabilitate tratamendua, nekazaritzarako dirulaguntzak, ingurumen kostuak, gehiegizko ekoizpenagatik zigorra, apartzeriaren kontabilizazioa.

122. gaia.- Sektore kontabilitatea (II). Eraikuntza enpresen kontabilitatea: diru sarreraren aitortpena, betekizunak eta balioespena gauzate ehunekoaren metodoan, kontratuaren arabeko prezioen metodoa, aurrerapen mailaren metodoa, diru sarreraren aitortpena aurreko betekizunak ez betetzekotan, azpikontratazioaren kontabilitate arazoak, proiektu eta aurreproiektuen hasierako gastuen kontabilitate arazoak, eraikuntza sektoreko eta higiezinaren sektoreko berariazko hornidurak. Higiezinaren sektoreko kontabilitatea: alokatzeko higiezinak, finantza errentamenduaren eta errentamendu operatiboaren kontabilitatea, izakinen balioespena, multijabetza, trukeak: lursailak geroko eraikuntzen aldera, alde zurretik bezero berankor baten kobrantza moduan saldutako izakinen sarrera, diru sarreraren aitortpena, bukatutako eraikuntzen salmenta, eraikitze aldiaren dauden eraikinen salmenta, alde zurretik ibilgetu material moduan sailkatutako ondasun higiezinaren salmenta: salmentarako mantendutako aktibo finkoak.

FINANTZETAKO MATEMATIKA

123. gaia.- Kapitalizazio bakuna: Hasierako kapitala, interesa, denbora eta interes tasa kalkulatzeko. Batez besteko tasa kapitalizazio bakunean. Kapitalen baliokidetasuna. Interes tasaren zatiketa. Tasa baliokideak. Kapital bat baino gehiagoren interesa. Efektu-deskontua. Kapitalizazio konposatua: hasierako kapitala, denbora eta tasa kalkulatzeko. Batez besteko tasa kapitalizazio konposatuan. Deskontu konposatua. Kapitalen baliokidetasuna. Kapitalizazio konposatua zatikizko aldiatarako. Interpolazio lineala eta hitzarmen lineala. Zuzeneko interpolazioa eta alderantzizko interpolazioa. Kapitalizazio bakunaren eta kapitalizazio konposatuaren alderaketa. Errentak: errenta konstanteak, errenta aldakorrek progresio geometrikoan, errenta aldakorrek progresio aritmetikoan, errenta zatikatutak, errenta jarraituak, interes bakuneko errentak.

124. gaia.- Maileguak: mailegu sinplea, mailegu amerikarra, metodo frantsesa, metodo lineala, amortizazio epe aldakorrek amortizatzen metodoa, gabealdia duten maileguak, interes zatikatutako maileguak, Sinking-Fund amortizazio sistema, mailegu-emailearen eta mailegu-hartzailearen tasa



efektiboa, interesa aurrez ordain daitekeen maileguak, maileguaren finantza balioa –gozarena eta jabetza soila–, interesa berrikus daitekeen maileguak.

125. gaia.- Jesapenak: aldizkako kupoi konstantea eta urteko kuota konstantea ezaugarri komertzialekin, aldizkako kupoia zozketa bakoitzean titulu kopuru berdina amortizatuz, aldizkako kupoi konstantea urteko kuota aldakorrarekin progresio geometrikoan eta normala, aldizkako kupoi konstantea urteko kuota aldakorrarekin progresio geometrikoan eta ezaugarri komertzialekin, aldizkako kupoi konstantea urteko kuota aldakorrarekin progresio aritmetikoan eta normala, aldizkako kupoi konstantea urteko kuota aldakorrarekin progresio aritmetikoan eta ezaugarri komertzialekin, gabealdia duen jesapena, kupoi zatikatudun jesapena, aldizkako kupoi konstantea eta urteko kuota konstantea amortizazio prima aldakorrekin, aurrez ordain daitekeen aldizkako kupoia, kupoi metatudun jesapenak.